



Deialdia

ESTATU MAILAKO HERRI KONTSULTA. MONARKIA EDO ERREPUBLIKA 2020ko maiatzaren 9an

Gizarte demokratikoetan herriek modu guztietako erabakiak hartzen dituzte, Estatu formarena delarik garrantzia duenetako bat. Gaur egungo biztanleri gehienak ez zuen aukerarik izan 1978ko konstituzioa bozkatzeko. Bozkatu zutenek aldiz, ezin izan zuten Estatu forma aukeratu, transizio demokratikoa deritzon hartarako eztabaidan ebatsi zelako. Ezin izan dugu erabaki, ez garai hartan ezta orain ere.

Horregatik hainbat erakundek eta taldek plataforma bateratu bat eratu dugu. Estatu mailako Herri kontsulta bultzatzeko, herritarrek bi hauen artean aukeratu dezaten Monarkia edo Errepublika.

Jakin badakigu kontsulta hau ez dela loteslea baina adierazpen modu bat da ekintza demokratiko eta parte-hartzailea. Honen bidez dagokigun guztiaren inguruan erabakitze eskubidea gauzatzen dugu.

Maiatzaren 9an izango da. Egunean bertan botoa emanez parte har dezakezu baina zure parte-hartzea handiagoa izan daiteke: kontsultaren berri emanez, herrialdetako lan taldeetan parte hartuz... Informazio guztia webgunean dago plataformaeestatalmonarquiaorepublica.org Datorren maiatzaren 9a parte-hartze demokratiko, aske eta herri adierazpenaren egun handia izango da. Denok bozkaren bidez aukeratu ahal izango dugun eguna, Monarkia edo Errepublika.

ZABALDU, BULTZATU, ANTOLATU, PARTE HARTU

ZUK ERABAKITZEN DUZU!